

1. Balorezko proposamenak

Canvas ereduko lehenengo zati honetan, gure balorezko proposamenak zehaztuko ditugu, kontuan edukita gure bezeroen ongizatea.

Gure enpresak onurak ekarri behar dizkio bezeroei eta kalitatezko zerbitzu bat eskainiko diegu.

Gure enpresaren helburua ez da dirua lortzea baizik eta umeen ongizatea, erosotasuna eta segurtasuna bermatzea.

Kontuan edukiko dugun lehendabiziko aspektuak hauek dira; zelan barneratuko diegun baloreak eta ideiak gure bezeroei.

Sarrera moduan, gure enpresaren zeregina azalduko dugu; gure enpresa, ospitaleko ume gaixoetan oinarrituko da. Ospitalera, gu joango gara, hau da, umeek ez dira mugituko, beraz emango dugun zerbitzua eraginkorragoa eta pertsonalagoa izango dela uste dugu.

Gure helburua, beraz, umeen ongizatea eta heziketa egoki bat edukitzea edo eskaintzea da, egunerokotasunetik ateratzea eta proposatutako ekintzak baliagarriak izatea.

Gure enpresak eskainiko duen heziketa, berezia izango da, hau da, ez gara oinarrituko ikastetxeetako programa akademikoak (matematika, historia...). Beti zentratuko gara ume bakoitzaren garapen mailan.

Gu, hezitzaile bezala jokatuko dugunez, gure umeen edo bezeroen beharrianak eta betebeharrak asetu eta ezagutu beharko ditugu, horregatik, gure bezero edo umeei, bere denbora eskeiniko diogu (galdeketak egin gure bezero edo umeak ezagutzeko).

Nahiz eta gure zerbitzua ume gaixoei bideratuta egon, gurasoak informazioa eskuragarri edukiko dute.

Hasieran, elkar ezagutzeko, gurasoekin bilera orokor bat antolatuko dugu, bertan urteko programazioa eta izango ditugun bilerak helaraziko ditugu.

Hilean behin hileko programazioa azalduko diegu, eta aurreko hilean izandako esperientziak partekatuko ditugu.

Guraso bakoitzak, bilera bat edukitzeko eskubidea izango du, bere seme-alabaren informazioa edo eboluzioa jakinarazteko.

Gurasoekin harremana izateaz gain ospitaleko medikuekin ere harremana izan beharko dugu, honi esker umeak hobeto ezagutuko ditugu eta lagungarria izango da.

Kontuan edukiko dugu umeen egunerokotasuna oso gogorra dela eta egun txarrak izango dituztela, egun txar horietan ezinbestekoa izango da haiekin hitz egitea, une horretan sentitzen dutena gurekin partekatzeko aukera ematea eta haien lekuen jartzea.